6858

EBAZPENA, 2008ko azaroaren 26koa, Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuordearena, 2008ko ekitaldiari dagokionez, «Gaitek Programa» delakoaren barruan produktu berriak garatzeko proiektuak burutzeko, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren laguntzak ematera bideratutako baliabideak gehitu direla argitara emateko dena.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2005eko ekainaren 27ko aginduaren bitartez, produktu berriak garatzeko proiektuak burutzeko «Gaitek Programa» arautzen da.

Agindu horretako 13.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriaz, Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuordeak 2007ko abenduaren 19ko Ebazpena eman zuen, zeinaren helburua hauxe baita: 2008ko ekitaldiari dagokionez, «Programa Gaitek» delakoaren barruan produktu berriak garatzeko proiektuak buru daitezen, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren laguntzak ematea Deialdia 2007-12-26ko EHAAn argitaratu zen.

Kontuan hartuta Gaitek programaren barruan aurkeztu diren laguntza-eskabideak eta, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak aurrekontuetan erabilgarri dituen baliabideak, egoki iritzi zaio 2008ko ekitaldirako programan ezarritako funtsak gehitzeari.

Horregatik, deialdia egin zuen ebazpenaren 1. artikuluan ezarritako ahalmenaz baliatuta eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuen urriaren 11ko 284/2005 Dekretuan xedatutakoaren arabera, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– 2007ko abenduaren 19ko Gaitek Programaren barruan (abenduaren 26ko EHAA) beste produktu batzuk garatzeko proiektuak egin daitezen, 2008ko deialdirako aurreikusitako diru-bideak 22.050.000,00 eurora arte emendatzea, 2008ko ekitaldirako, betiere Merkataritza eta Turismo Saileko beste laguntza-programa batzuk burutzean xahutu gabe geratu diren aurrekontu-baliabideen arabera.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko azaroaren 26a.

Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuordea,
JOSÉ IGNACIO TELLECHEA FERNÁNDEZ.

6858

RESOLUCIÓN de 26 de noviembre de 2008, del Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial, por la que se hace público el aumento de los recursos destinados para la concesión de ayudas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo para la realización de proyectos de desarrollo de nuevos productos en el marco del «Programa Gaitek», para el ejercicio 2008.

La Orden de 27 de junio de 2005, de la Consejera de Industria, Comercio, y Turismo, regula el «Programa Gaitek» de apoyo a la realización de proyectos de desarrollo de nuevos productos.

De conformidad a lo establecido en el artículo 13.2 de la citada Orden, el Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial dictó resolución con fecha 19 de diciembre de 2007, publicándose la convocatoria en el BOPV de 26 de diciembre del 2007, para el ejercicio 2008, de concesión de ayudas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo a la realización de proyectos de desarrollo de nuevos productos en el marco del «Programa Gaitek».

Teniendo en cuenta la cuantía de las ayudas solicitadas, dentro del «Programa Gaitek», y en función de las disponibilidades presupuestarias del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, procede realizar un incremento de los fondos destinados a las ayudas que en el mismo se establecen, para el ejercicio 2008.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el artículo 1 de la resolución de convocatoria, en relación con lo dispuesto en el Decreto 284/2005, de 11 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Comercio y Turismo

RESUELVO:

Primero.– Incrementar hasta un total de 22.050.000,00 euros, los recursos económicos previstos para la convocatoria de 2008 de apoyo a la realización de proyectos de desarrollo de nuevos productos, en el marco de «Programa Gaitek», de fecha 19 de diciembre de 2007, publicada en el BOPV de 26 de diciembre, para el ejercicio 2008, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

Segundo.– Contra la presente resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco

En Vitoria-Gasteiz, a 26 de noviembre de 2008.

El Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial,
JOSÉ IGNACIO TELLECHEA FERNÁNDEZ.